

MISERICORDIOSOS COMO EL PADRE
ERRUKITSU AITA BEZALA



ERRUKIAREN JUBILEUA



Donostiako
Elizbarrutia
Diócesis de
San Sebastián

1. FRANTZISKO AITA SANTUAK ERRUKIRAKO DEIA EGIN DIGU.	
Donostiako Gotzainaren mezua	7
2. INDULJENTZIA ERRUKIAREN JUBILEUAN	13
3. ATE SANTUAK	19
3.1. Arantzazuko Santutegiko egitaraua	19
3.2. Loiolako egitaraua	20
3.3. Katedraleko egitaraua	21
4. ADISKIDETZEAREN SAKRAMENTUA	25
4.1. "24 Ordu Jainkoarentzat"	25
4.2. Errukiaren Misiolariak (Aita Santuaren aitor-entzuleak)	26
4.3. Aitortzarako lekuak eta orduak	27
5. ERRUKIAREN ESPERIENTZIAK GURE ELIZBARRUTIAN	31
5.1. "Arrotz bainintzen, eta etxean hartu ninduzuen" (Mt 25, 35) CARITAS.....	31
5.2. "Gaixo nengoen eta bisitatu ninduzuen" (Mt 25, 36)	32
5.2.1. Aita Menni ospitalea: buruko gaixotasunak	32
5.2.2. Osasun pastoraltza	33
5.3. "Kartzelan nengoen eta ikustera etorri zineten" (Mt 25, 36) ESPETXE PASTORALTZA	34
5.4. Familia, errukiaren etxe: FAMILI PASTORALTZA	35
5.5. Gure gizartean txertatuak, Errukiaren Erreinua eraikiz	36
6. GURE ELIZBARRUTITIK KANPOKO ESPERIENTZIAK	39
<i>"Utzi zure lurra, eta zoaz nik erakutsiko dizudan lurraldera" (Gn 12, 1)</i>	
6.1. Misiok	39
6.2. Gazteen erromesaldia Poloniara: MGT 2016	39
6.3. Helduen erromesaldia Krakoviara	40
7. OTOITZA	43
<i>"Bihotzera mintzatuko natzaio" (Os 2, 16)</i>	
7.1. "Hona hemen gizakiak hainbeste maite dituen Bihotza". URGULL MENDIKO KAPEREA	43
7.2. "Izan gurekin erruki!". JAINKOZKO ERRUKIAREN KOROA.....	44
8. ADISKIDETZE ESPERIENTZIA: OSTIRAL SANTUKO GURUTZE-BIDEA URGULLERA	49
<i>"Jaunak barkatu zizuen bezala, barkatu zuek ere, elkarri" (Kol 3, 13)</i>	



1

FRANTZISKO AITA SANTUAK ERRUKIRAKO
DEIA EGIN DIGU
Donostiako Gotzainaren Mezua

FRANTZISKOK ERRUKIRA DEITZEN GAITU

(Donostiako Gotzainaren Mezua)

*“Errukiorra eta bihozbera da Jauna,
haserregaitza eta onginahi handikoa;
Ona da Jauna guztientzat,
gupidaz betea bere sorkari guztientzat”.*

(Sal 144, 8-9)

Zer esan genezake Jainkoari buruz? Zer dakigu Jainkoaz?... Geure buruaz ere gauza gutxi esan dezakegu eta are gutxiago gure sinesmen eta ideologiez. Elizaren predikazioaren iturria jainkozko Errebelazioa dugu, hau da Jainkoaren Bihotza ezagutzeko egiazko argia.

Jainkoa errukitsua da! Ziurtasunez eta itxaropenez beterik esan dezakegu. Albiste handiena ez da soilik Jainkoa badela, gu Harentzat garela baizik; eta Berak gutako bakoitza modu bakarrean eta beste inor ez bezala maite duela.

Jainkoaren maitasunaren frogarik nagusia, bere Gizon egitea eta Haren Heriotza eta Piztueraren ditugu. Horregatik hain zuzen ospatu zuen Elizak 2000 urtean Gizon egitearen Jubileua. Eta horrexegatik halaber, 1933 eta 1983ko Erospenaren Jubileuak eta 1900 eta 1950eko Heriotza eta Piztueraren Jubileuak. Orain, Frantzisko gure Aita Santuak Jainkoaren Errukia ospatzeko ohiz kanpoko Jubileua deitu du. Aurrekoak ez bezala, ez du urtemuga zehatzik gogoratzen; honetan Jainkoa mugarik gabe ona, errukitsua dela gogoratzen digu. Alajaina!

Baina areago, Jainkoa errukitsua dela ospatzeaz gainera, bere irudiko sortu gaituela ere gogoratzen dugu eta hartaz, gu ere errukitsu izatera deituta gaudela. Hortik Jubileu Urtearen leloa: “Errukitsu Aita bezala”. Seme-alabak Aita bezalakoak izatea espero da. Kontrakoa Hari traizioa egitea litzateke eta zorigaitza guretzat.

Errukia Jainkoaren dohaina dela gogoratzen digu horrek eta baita geu bihotz-berritzeko deia ere. Jainkoaren errukia ez da gure bekatua “estaltzea”, barru-barruko eraldatzearen miraria egitea baino. Beste era batera esanda, Jainkoaren ontasuna ez da gure bekatuarekin pazientzia iza-

tean bakarrik agertzen, gu guztiak santu egitean baizik. Horregatik du Jubileuaren ospakizunean horrenbesteko garrantzia Adiskidetze sakramentuak.

Hau hobeto ulertu ahal izateko oso baliagarria zaigu Frantzisko Aita Santuak Elizaz hitz egiteko erabilitako irudia: “kanpaina ospitalea”. Ospitale on batek, gaixoaren oinazea arintzeaz gainera, hura sendatzeko gai izan behar du. Egia da giza medikuntza mugatua dela eta maiz, zainketa leungarrietara baino ez dela iristen. Baina oso bestelakoa da jainkozko “medikuntza”! Isaias profetak dion moduan: *“zuen bekatuak gorria baino gorriago badira ere, elurra bezain zuri geldituko dira; purpura bezain gorri izanik ere, artilearen antzeko bihurtuko dira* (Is 1, 18).

Laburbilduz, egiazko errukia, norberaren bihotz-berritzea eragiten duena da eta halaber, lagun hurkoarekin pazientzia izaten laguntzen diguna. Hona hemen Jubileu Urterako helburu egokia: Izan zorrotz zeure buruarekin eta eskuzabal besteekin!

Ildo honetatik Jubileu honetarako konpromiso garrantzitsua proposatzen dizuet: baztertu ditzagun kritika, zurrumurru, txutxu-mutxu eta gaizki esanak. Nola ospatuko dugu ba Errukiaren Jubileua batak bestea etengabe epaitzen ari bagara? Nola, Jainkoaren barkamena jaso, bihotz-bihotzetik elkarri barkatzen ez badiogu? Gure Elizbarrutian Jubileu honek egiazko barkamen eskea eta barkamenaren onarpena behar du izan. Bestela, azaleko ospakizun soila izango da eta ez dugu lortuko gure bizitzan barneratzea eta gu aldatzea.

Frantziskok bere aitasantualdian behin eta berriz errepikatu duen eskaera dugu. Eta hitz sendoak erabili ditu zinez: *“Zurrumurruek Deabruaren gonbitoa dira”; “Zurrumurruek, armek bezala edo eta gehiago hiltzen dute”; “Lagun hurkoari buruz gaizki esaka ibiltzeko mihia erabiltzea, Jainkoa erailtzeko erabiltzea da”; “Zenbat txutxu-mutxu Elizaren beraren baitan!”... Frantziskoren dei hau bat dator zurrumurruei aurre egiteko modurik onena diren Espirituaren Errukizko Ekintzekin: oker dagoena zuzendu, beharrean denari aholku ona eman, lagun hurkoaren akatsak pazientziaz hartu,... Salmoaren hitzekin, denok batera, fedez beterik Jainkoari otoitz egitera gonbidatzen zaituztet: *“Ipini, Jauna, jagolea nire ahoari, zaindu nire ezpainetako atea ”* (Sal 141,3)*

Esku artean duzuen Errukiaren Jubileuaren liburuxka honetan, Gorputzeko Erruki-egintzez luze eta zabal hitz egin nahi izan dizuegu. Ezin ahaztu Samariar Onaren parabolak, errukiz jokatzera deitzen gaituela: *“Zoaz eta egin zuk ere beste horrenbeste”* (Lk 10, 37). Ahalegin berezia egin dugu gure Elizbarrutian Jubileurako prestatutako egitarauan Errukizko-egintzek leku zabala izan dezaten. Besteak beste, pobreekin, presoekin, gaixoekin, misiolariekin,... errukizko esperientzia izateko aukerak topatuko dituzue bertan. Har ezazue parte ahal duzuen neurrian eta ez zaitetze ikusle huts izan.

Bukatzeko, Errukiaren ohiz-kanpoko Jubileua deitzeko Aita Santuak idatzitako “Misericordiae Vultus” buldan (benetan merezi du oso-osorik irakurtzeak), gu guztiontzat erabilgarriak diren hitzak zuzentzen dizke Frantziskok presoiei. Ate Santura hurbiltzeko dituzten eragozpenak kon-tuan hartuta, “euren ziegako atea zeharkatzerakoan” pentsamenduak eta otoitza Jainkoari eskaintzera deitzen ditu. Hori izango dute bereko Ate Santua!

Aita Santuak presoei esandakoa guretzat ere ikasbide gertatzen da. Gutako bakoitzak gure bizitzan "Ate Santu" berezia zein dugun asmatu eta Kristoren Bihotzean uste osoa jarrita zeharkatu behar dugu. Jainkoak gure kartzelaren burdin hesiak askatasun bihur ditzake eta "ate mardikatua", "ate bedeinkatua" bilakatu. Eta ez gara, ez, Mariaren laguntza faltan izango. Hari buruz zera dio Frantzisko Aita Santuak: "Maria dugu, ukuilua Jesusen etxe bihurtzen dakiena, haur-oihal xumeak eta samurtasun pila bat erabiliz".

Jubileu honek, askotan mingarria zaigun eta barneratu ez dugun gure bizitzarekin adiskidetzeko aukera eskaintzen digu. Gure akatsik handienak ere, apaltasunaren bidetik Kristo aintzatsuarengana garamatzen probidentziaren parte direla jakin behar dugu fedearen argitan. Gutako bakoitzaren historia, Salbamen Historiaren arabera ulertu behar dugu. Ez dezagun zalantzarik izan: errukiaren argia gutako bakoitzaren historia ulertzeko giltza dugu.



2

INDULJENTZIA ERRUKIAREN JUBILEUAN

INDULJENTZIA ERRUKIAREN JUBILEUAN

Jubileuaren ezaugarri berezietako bat barkamen-induljentzia da. Honela dio Aita Santuak: *«Errukiaren Urte Santuan garrantzi berezia hartzen du gai honek. Jainkoak gure bekatuentzat duen barkamenak ez du mugarik. Jesu Kristoren heriotza eta piztueran, Jainkoak ageriko egiten du, gizakien bekatua desegiteko indarra ere baduen maitasuna. Jainkoarekin adiskidetzea posible da pazko-misterioari eta Elizaren bitartekotzari esker» (Misericordiae Vultus 22).*

«Bekatua erruari dagokionez barkatua izan ondoren denborazko zigorra Jainkoaren aurrean barkatzea da induljentzia. Fededunak, behar den jarrera izanik eta baldintza zehatz eta jakin batzuk betez iristen du hori, Eliza bitarteko dela; izan ere, Kristok eta santuek gure izenean eta ordainez lortutako grazi altxorra erabiltzen du horretan Elizak» (Pablo VI.a, Indulgentiarum Doctrina Konstituzio Apostolikoa, 1. araua).

2015eko irailaren 1ean Ebanjelizatze Berria Sustatzeko Aita Santuaren Kontseiluko presidenteari Aita Santuak igorritako gutunean zehazten dira Errukiaren Jubileuan barkamen-induljentzia iristeko baldintzak:

«Barkamen-induljentzia bizitzeko eta iristeko, Ate Santura erromes-ibilaldi laburra egitera deituak daude fededunak; Katedralean nahiz elizbarrutiko gotzainak erabakitako elizetan edota Aita Santuaren Erromako lau basiliketan zabalduko Ate Santura, egiazko bihotz-behritzearen asmoaren ezaugarri moduan, egindako erromes-ibilaldia da. Era berean, Ate Santua zabaltzen den santutegietan eta tradizioz Jubileu-eliza direnetan barkamen-induljentzia iritsi ahal izatea erabakitzen dut. Garrantzitsua da une hau Adiskidetzearen Sakramentuekin eta errukiaren inguruan hausnarketa eginez ospatutako Eukaristiarekin lotua egotea. Beharrezkoa izango da ospakizun hauekin batera fede-aitormena egitea eta nire alde eta Elizaren eta munduaren onerako bihotzean daramatzadan asmoen alde otoitz egitea.

Gogoan ditut, gainera, arrazoi ezberdinak direla eta Ate Santura hurbiltzerik ez dutenak, lehenengo gaixoak eta adineko pertsonak nahiz bakarrik daudenak, sarritan etxetik atera ezin direlarik. Lagungarri izango da hauentzat gaixoaldia eta sufrimendua Jaunaren gertutasunaren esperientzia moduan bizitzea, bere nekaldi, heriotza eta piztueran agertzen baitu hark minari eta bakardadeari zentzua emateko bide nagusia. Gure Jauna hartuz nahiz meza santuan eta elkarteko otoitzean parte hartuz (baita komunikabideen bidez ere), probaldi hau itxaropen pozgarri bizitzea izango da hauentzat Jubileuko induljentzia iristeko bidea. Gogoan ditut presoak ere, beren askatasuna mugatua dutenak. Jubileua beti izan da amnistia

orokor baterako egokiera. Zigorra merezi izan arren, egindako zuzengabekeriaren arduraz jabetu eta era zintzoan beren ekarpena eginez gizarteratu nahi dutenei zuzendua egon ohi da bereziki amnistia hau. Iritsi bedi horien guztiengana Aitaren errukia, bere barkamenaren beharrik handiena dutenen ondoan egotea baitu Aitak gogokoen. Kartzeletako kaperetan iritsi ahal izango dute induljentzia, eta pentsamenduz eta otoitzez Aitarekin bat eginez beren ziegako atea igarotzen duten bakoitzean Ate Santua igarotzearen ezaugarria egingo dute, bihotzak aldatzeko gai den Jainkoaren Errukiak, bihur baititzake burdinazko atek askatasun-esperientzia.

Gorputzeko nahiz espirituzko erruki-egintzek berekin duten aberastasuna berriz aurkitzeko eskabidea egin diot Elizari. Errukiaren esperientzia, izan ere, ezaugarri zehatzen testigantza bidez egiten da ikusgai, Jesusek berak erakutsi zigun moduan. Fededunak ekintza hauetako bat edo gehiago era pertsonalean bizitzen dituen bakoitzean Jubileuaren induljentzia iritsiko du egiaz. Hortik, errukiaren argira bizitzeko konpromisoa, horrela, inor baztertzen ez duen Aitaren maitasunaren indarrez barkamen oso-osoa iristeko. Jubileuko induljentzia bete-betea izango da, beraz, fedez, esperantzaz eta maitasunez ospatu eta bizitutako gertakariaren fruitu moduan.

Jubileuaren induljentzia irabaz daiteke, azkenik, hildakoentzat. Haiekin bat eginda gaude, utzi ziguten fedezko eta karitatezko testigantzari esker. Eukaristi ospakizunean oroitzen ditugun era berean, otoitz egin dezakegu haien alde santuen elkartasunaren misterio handiari esker, Aitaren errukizko aurpegiak erru guztitik aska ditzan eta amaigabeko zorionean besearkatu».

Gure Elizbarrutiko hiru elizatan zabalduko da Ate Santua: Donostiako Artzain Onaren Katedralean eta Arantzazuko eta Loiolako santutegietan. Jubileu-eliza dira gainera Donostiako Urgulleko Jesusen Bihotza kapera eta Arrasateko *Aita Menni* zentroko kapera.

Barkamen-induljentzien okerreko ulerkera dela medio, Urte Santuaren esanahia ez indargabetzarren, komenigarri da ohar hauek kontuan hartzea:

- Aita Santuak berak dioena azpimarratuz, «garrantzitsua da [Jubileuko induljentzia lortzea] Adiskidetzearen Sakramentuarekin eta errukiaren inguruan hausnarketa eginez ospatutako Eukaristiarekin lotua egotea. Beharrezkoa izango da ospakizun hauekin batera fede-aitormena egitea eta nire alde eta Elizaren eta munduaren onerako bihotzean daramatzadan asmoen alde otoitz egitea».
- Laburbilduz, hiru dira induljentzia osoa lortzeko baldintzak: «Adiskidetzearen Sakramentua, eukaristi jaunartzea eta Aita Santuaren asmoen alde otoitz egitea» (ik. Paulo VI.a, *ibíd.*, 7. araua).

- Frantzisko Aita Santuak dei egiten die fededunei, Aita Santuak berak edota elizbarrutiko gotzainak izendatutako eliza bateko «Ate Santura erromes-ibilaldi laburra egitera... egiazko bihotz-berritzearen asmoaren ezaugarri moduan».
- Induljentzia osoa lortzeko beharrezko diren hiru baldintzak, «egin beharreko ekintza baino egun batzuk lehenago nahiz geroago bete daitezke» (Pablo VI, *ibíd.*, 8. araua), hau da, erromes-ibilaldia eta Ate Santutik sartzea egingo den egunaren aurretik nahiz ondoren. Fede-aitormena egitea aipatzean Kredo esatea adierazi nahi da; eta Aita Santuaren asmoen aldeko otoitzaren baldintza Gure Aita eta Agur Maria bat esanez betetzen da (ik. Paulo VI.a, *ibíd.*, 10. araua).
- Induljentziak ematekoan Elizak bitartekoarena egiten du, induljentzia osoa lortu nahi duten fededunen alde otoitz eginez eta «Kristok eta santuek gure izenean eta ordainez lortutako grazi altxorra» erabiliz.
- Elizaren eskari-otoitz honek ez du esan nahi Elizak berak "altxorren" bat daukanik Kristo Jaunagandik aparte. Alderantziz, induljentziak eskaintzean, zeruetako Aitaren dohainezko maitasuna agertzen digun Kristoren Gorputz denez egiten du hori.
- Elizaren eskari-otoitzaren giro honetan, hau da fededunak egiten duena: bekatuaren ondorioetatik askatzen gaituen Kristoren salbamenera zabaltzen du bere barrua. Hain zuzen, gizaki osoa Jainkoagana itzuli eta bihotz-berritzeko prest dagoenean eta jarrera hori duen neurrian gertatzen dira induljentziak egiazko.
- Horregatik, induljentziak ez dira aurkeztu behar, bekatuaren ordaina gure bihotz-berritzearekin eta Jainkoaganako maitasunarekin zerikusirik gabe barkatuko balute bezala, maitasuna baita, hain zuzen, Jainkoarekiko gure harremanen neurria ematen duena. Induljentziak, alderantziz, laguntza dira, bekatari damutuak Jainkoak eskaintzen dion adiskidetasuna gogo biziagoz bereganatzera eramango duen maitasuna lor dezan.
- Induljentzietz hitz egitekoan, hauek ez dira Adiskidetze sakramentuaren ordezkotako gisa aurkeztu behar. Induljentziak, alderantziz, laguntza dira, fededun damutuak gogotsuago egin dezan Jainkoarekin adiskidetzeko bidea, eta argiago ikus ditzan, bekatuak, gu Jainkoagandik eta senideengandik aldentuz, ekartzen dizkigun ondorioak.

Induljentziak, bestalde, ez dira matematikazko zenbakien erara aurkeztu behar, Jainkoak gizon-emakumeekin dituen harremanak salerosketa alorrekoak balira bezala, alde batera utzirik Aitak gizakiei dien dohainezko maitasuna eta hauek maitasun horri ematen dioten erantzun lehorra.



3

ATE SANTUAK

ATE SANTUAK

Fededunontzat garrantzi handiko gertakizuna da Jubileu urtea ospatzea. Jubileua, bekatu- zor guztiaren barkamena da, elkarren aurka bizi izan direnen adiskidetzea, eta bihotz-berritzearen edo barkamen sakramentuaren urtea. Era berean elkertasunaren, itxaropenaren, zuzentasunaren eta Jainkoa eta lagun hurkoa pozik zerbitzatzeko asmoa biziberritzeko urtea. Hitz batean esateko, gizadiari grazia eta bizi-berria dakarkion Kristoren urtea dugu.

Lau gauza eskatzen zaizkigu bereziki: 1.- Bakoitzak bere bekatua eta leialtasun eza aitortzea. 2.- Bihotz-berritze jarrera izatea. 3.- Barkamen-sakramentua hartzea. 4.- Barkatzeko grazia eskatzea.

Barkamen induljentzia lortzeko gure Elizbarrutian hiru santutegi nagusi izendatu ditugu: Artzain Onaren Gotzain-eliza (katedrala), Arantzazuko Andre Mariaren Santutegia eta Loiolako San Ignazioren santutegia. Bai eta ere induljentzia irabazi ahal izango da Aita Mennin (Gesalibar, Arrasate) eta Urgulleko (Donostia) Jesusen Bihotzaren kaperan. Ondorengo ospakizun hauek antolatuko ditugu hiru santutegi nagusietan:

3.1. Arantzazuko Santutegiko egitaraua

- 1.- **Jubileuaren irekitzea Abenduak 13an eguerdiko 12,00tan** Gotzain Jaunak ospatuko duen Meza Santuarekin.
- 2.- **Gune berezia:** Sakristiako irteerako txokoan kaperera erako otoitz lekua antolatuko da, Errukiaren Jubileuko panel handia izango da han. Erdi-erdian, gurutzea eta otoitz egiteko bankutxoak. Otoitzerako lagungarri, musika eta otoitz eta gogoeta liburuzka.
- 3.- **Aitortza Sakramentua:** igandero, urte osoan goizeko 11:00etan
- 4.- **Igandetako Meza**
 - Mezaren hasiera (damuarena) txoko berezi horretan. Sarrerako kantuz apaiza txoko horretara doa. Gurutzea intsentsatu. Eta damuarena hor (Aita Santuaren Jubileuko otoitz berezia denok batera). Ondoren Aintza kantatu bitartean apaiza aldarera igotzen da (Aintzarik ez denean, -Abendualdia, Garizuma-, isilik).
 - Sinesten dut: monizio berezia.
 - Bakea ematea: "Torizu bakea" kantatuz indarra eta zentzua eman.
 - Azken agurra, misio bezala azpimarra laburra.

5.- Otoizlekuak

- Hiru otoitzaldi: Abendua, Garizuma, Mendekoste
- Datak eta gaiak:
Abenduaren 19a 17,00etan: Goazen etxera bisita daukagu
Martxoaren 12a 17,00etan: Errukiak negar eginarazi digu
Maiatzaren 14a 17,00etan: Errukiak su hartu du

6.- Erromesaldia: Martxoaren 19an

- Dena Jubileuaren esanahira Bildu
- Estampa bat atera
- Erramu bezperako erromesaldia Jubileuaren inguruan

7.- Hogeita lau orduak: Martxoaren 4tik 5era

HARREMANETARAKO:

<http://arantzazu.org/es/santuario>

Telefonoa: 943 78 09 51 / 943 78 07 97

3.2. Loiolako egitaraua

1.- Urte Santuaren hasieran Ate Santuaren irekitzea: Abenduak 20an eguerdiko 12,00etan
Gotzain Jaunak ospatuko duen Meza Santuarekin

2.- Hilabete bakoitzeko azken larunbatean (2015-2016 urtetan)

- Elkarteko penitentzi ospazkizuna Jainkoaren Errukia oinarri izanda. 17:30ean
- Errukiaren Eukaristia. 18:00etan: Abenduak 26an, Urtarrilak 23an, Otsailak 27an eta Martxoak 26an
- Elkarteko penitentzia Jainkoaren Errukitik abiatuta. 18:30ean
- Errukiaren Eukaristia 19:00etan: Apirilak 23an, Maiatzak 28an, Ekainak 25an, Abuztuak 27an, Irailak 24an eta Urriak 29an

3.- Hilabete bakoitzeko azken igandean (2015-2016 urtetan)

- Errukiaren Eukaristia 12:00etan: Abenduak 27an, Urtarrilak 24an, Otsailak 28an, Martxoak 27an, Apirilak 24an, Maiatzak 29an, Ekainak 26an, Abuztuak 28an, Irailak 25ean eta Urriak 30ean

4.- Igandeko Meza Santua urte osoan zehar (2015-2016):

- Eguediko 12:00etako eta arratsaldeko 7:00etako Eukaristietan Errukiaren Jubileuko otoitza eta bedeinkapen berezia egingo dira
- Goizeko 08:30ean (Konbertsioko kaperan), eta basilikan 11:00etan, 13:00etan eta 19:00etan ospatuko diren Mezetan Errukiaren Urtearen aipamen berezia egingo da

5.- "24 ordu Jaunarekin". Martxoaren 4tik 5era. Jaunaren gurtza izango da, 24 ordutan

6.- Loiolako Ignazioren Bederatziurrena: Uztailaren 22tik 31ra, 19:00etan: San Ignazio-ri eskainitako bederatziurrenean eta Eukaristian Jainkoaren baldintzarik gabeko maitasuna azpimarratuko dugu, Bere amaigabeko errukiaren konfiantza adieraziko eta Ignaziotar esperientziatik abiatuta eskerrak emango dizkiogu Jainkoari Bere Seme Jesu kristoren bitartez eta Espirituaren maitasunean eman digun salbamenagatik

7.- Erretiroak: Abendualdian, Abenduaren 5ean (2015) eta Garizuman, Otsailaren 27an (2016) Izena emateko, Loiolako Gogartetxera jo behar da: 943 020 025

HARREMANETARAKO:

<http://www.santuariodeloyola.org/>

Telefona: 943 02 50 00

3.3. Artzain Onaren Katedraleko egitaraua

1.- *Katedraleko Ate Santuaren irekiera eta Errukiaren Jubileuaren hasierako Eukaristia, gure Gotzainak zuzenduta: Abenduaren 13an, 18:00etan.*

2.- *Jubileu urteko igande guztietan, 18:00etako Mezan:*

- 17:45etik 18:45era bitartean, apaizak izango dira aitortzarako prest.
- Jubileuko erromesak bereziki aipatuko dira Eukaristian eta ospakizuna Errukiaren Urteko otoitzarekin amaituko da.

3.- *Erromesak hartzeko gune berezia Ate Santuaren sarrera inguruan eta boluntario zerbitzua.*

Katedralaren Ate Santuaren inguruan dagoen kaperan Errukiaren Urteko erromesak jaso eta artatzeko gune berezia antolatuko da. Bertan, argibideak eskaintzeko panelak, ikus entzunezkoa eta beste hainbat material izango dira eskura.

Halaber, erromesei harrera egin, lagundu eta argibideak emateko, boluntarioak izango dira. Zeregin horretan jardun nahi duen ororentzat, atea zabalik dugu. Jarri harremanetan On Jose Ignazio Romero apaizarekin: joseignaciomeroramirez@gmail.com

4.- *Ostegun Eukaristikoak.*

Urte osoan zehar, 10:00etako Mezaren ostean eta 11:00k arte, Gure Jauna gurtuko da. Ordu erdiko Gurtza izango da egunero eta ondoren fededunek Gure Jaunarekin emandako bedein-
kapena jasoko dute.

5.- “24 ordu Jaunarentzat”. Otoitza eta aitortzak **Martxoaren 4tik 5era.**

6.- Ebanjelizazio Astea.

Apirilaren 28tik eta Maiatzaren 2ra arte, “Hermanitas del Cordero” elkarteko erlijiosek zuzen-
duta, ebanjelizazio astea ospatuko da.

HARREMANETARAKO:

Telefonoa: 943 46 45 16

posta: joseignaciomeroramirez@gmail.com (On Jose Ignazio Romero)



4

ADISKIDETZE SAKRAMENTUA

ADISKIDETZE SAKRAMENTUA

Adiskidetze sakramentua, Penitentzia sakramentua, Aitortza sakramentua edo Barkamenaren sakramentua. Ematen diogun izena ematen diogula ere, Errukiaren Jubileuaren ardatza dugu. San Juan Krisostomo, IV. Mendeko Eliza gurasoa izan zenaren hitzak gogora ekarrita: “Penitentziarako bost bide erakutsiko dizkizut: lehena, bekatuen aitortpena; bigarrena, lagun hurkoari bere zorrak barkatzea; hirugarrena, otoitza; laugarrena, limosna; eta bosgarrena, apaltasuna”.

Ez dira ez, txandaka egiteko bost bide eta ez du batak bestea baztertzen, ez horixe. Alderantziz, Ebanjelioaren logikaren arabera batasun bereizezina osatzen dute guztiek batera. Aitortza ezin da izan gure bizitzan isolatutako ekintza hutsa, bititza oso eta betea bilatzen duen bihotzaren adierazpen gorena baizik.

Errukiaren Jubileurako argitaratutako buldan, Frantzisko Aita Santuak gu guztiontzat oso baliagarri diren hitzak zuzendu dizkie aitortleei: *“Ez naiz aspertuko esateaz, aitor-entzuleak izan daitezela Aitaren errukiaren egiazko ezaugarri. (...) Ez dezagun ahaztu inoiz, aitor-entzule izatea Jesusen egiteko berean parte hartzea dela eta barkatzen eta salbatzen duen jainkozko maitasunak irauten duenaren ezaugarri zehatz izatea. Gutako bakoitzak Espiritu Santuaren dohaina jaso du bekatuen barkamenerako, horren ardura eman zaigu. Gutako inor ez da Sakramentuaren jabe, Jainkoaren barkamenaren zerbitzari leial baizik. Seme hondatzailearen parabolako aitak bezala onartu behar ditu fededunak aitor-entzule bakoitzak: ondasunak alferrik xahutu arren, semearen bidera lasterka ateratzen den aitak bezala. Damuturik etxera itzultzen den seme hori besarkatzera deituak dira aitor-entzuleak eta, aurkitzean, poza adieraztera”.* (MV17))

Jainkoaren errukiaren altxor handia den hori denontzat eskuragarri izan dadin, Aita Santuak apaiz guztiei eman die Jubileu honetan zehar Elizbarrutiko Gotzainak bakarrik barkatu ditzakeen bekatuak barkatzeko ahalmena.

4.1. “24 Ordu Jaunarentzat”

Ebanjelizazio Berrirako Aita Santuaren batzordeak Frantziskoren aitasantualdian martxan jarri dituen ekimenen artean, “24 ordu Jaunarentzat” dugu. Denon gogoan komunikabideen bidez zabaldu zen irudia: fededunak aitortu aurretik Aita Santua bera bere burua aitortzen ikusi ahal izan genuen San Pedro Basilikan.

Garizumako hirugarren asteko ostiraletik larunbateraino egiten den ekimena da. Elizek 24 orduz “ate irekiak” dituzte eta bereziki eskaintzen zaio nahi duen orori Barkamenaren sakramentua. Tamalez egun parrokien ateak ordu askotan izaten dira itxita eta ekimen honekin “ate irekiak dituen eliza” izan nahi dugula azpimarratu nahi dugu; Kristoren Bihotza den modukoa, beti “irekia”, bere barkamena emateko prest.

Aurten, gure Elizbarrutian Ate Santua irekiko duten hiru elizetan (Arantzazu, Loiola eta Katedrala) egingo dugu “24 Ordu Jainkoarentzat” ekimena, eta baita beste hainbat elizetan ere.

Hona hemen Misericordiae Vultus Buldan Aita Santuak ekimen honen inguruan diona: *“Indartu bedi Elizbarrutietan, Garizumako IV. Igandearen aurreko ostirala eta larunbata bitartean egingo den “24 ordu Jaunarentzat” izeneko ekimena. Asko dira Adiskidetzearen sakramentura berriz hurbiltzen ari direnak eta horien artean gazte asko, honelako bizipen batean Jaunarengana itzultzeko, otoitzean une sakon bat bizitzeko eta norbere bizitzaren zentzua aurkitzeko bidea berriro aurkitzen dutenak. Uste osoz jartzen dugu erdigunean Adiskidetzearen sakramentua, geure baitan errukiaren handitasuna bizitzeko aukera ematen digulako. Aitortzaile bakoitzarentzat barneko egiazko bake-iturri gertatuko da”*. (MV 17)“.

4.2. Errukiaren Misiolariak (Aita Santuaren aitor-entzuleak)

Apaiz guztiei gotzainek bakarrik barkatu ditzaketen bekatuak barkatzeko ahalmena ematea nahiko ez eta urte honetarako neurri ausartagoa hartu du Frantziskok: bere izenean, Aita Santuak bakarrik barkatu ditzakeen bekatuak barkatzeko gai diren Errukiaren Misiolariak bidaliko ditu mundu osora.

Horrela azaltzen du erabakia Buldan: *“Urte Santu honetako Garizuman, errukiaren Misiolariak bidaltzeko asmoa dut. Elizak jainkoaren Herarekiko duen ama-arretaren ezaugarri izango dira, fedearentzat oinarritzakoa den misterio honen aberastasunean murgil dadin Herri hori. Apostolu Aulkiaren ardurapekoak diren bekatuak ere barkatzeko aginpidea emango diedan apaizak izango dira, honela beraien agintearen zabaltasuna agerian gera dadin. Barkamena bilatzen dutenak Aitak nola onartzen dituen ezaugarri bizi izango dira bereziki. Errukiaren misiolari izango dira, gizatasunez betetako elkarganatzea egingo dutelako denen aurrean, askatasun-iturri eta arduraz aberatsa izango den elkarganatzea, oztopoak gainditu eta Bataioko bizi berriari ekiteko. Apostoluaren hitzak izango dituzte eginkizun horretan gidari: “Jainkoak errebelde izaten utzi zien gizon-emakume guztiei, denez erruki izateko” (Erm 11,32). Guztiak daude, beraz, inor baztertu gabe, deituak errukiranzko deia jasotzera. Misiolariak bizi bezate dei hau, jakinik, beren begirada zuzendu diezaioketela Jesusi, “apaiz nagusi errukitsua eta fidagarria” (Heb 2,17) delako”*. (MV 18).

Errukiaren Misiolari izango direnak, bidalketa agindua Hausterre egunean jasoko dute, Vatikanoko San Pedro Basilikan egingo den ospakizunean. Egun horretan Pietrelcinako San Pioren gorputz usteldu gabea Vatikanoko Basilikara eramatea agindu du Aita Santuak. Izan ere, Adiskidetzearen sakramentuaren garrantzia azpimarratu eta suspertzeagatik ezaguna den santua dugu.

Gure Elizbarrutian, Arantzazun, Loiolan eta Katedralean arituko dira Aita Santuak bidalitako Errukiaren Misioari hauek.

4.3. Aitortzarako lekuak eta orduak

Barkamen sakramentala ahalik eta gehien erraztu ahal izateko gure Elizbarrutiko parrokia guztietan aitortzarako ordutegi berezia antolatzen saiatuko gara, banakako barkamena eskainiko duten taldeko penitentzia ospakizunak antolatzeaz gainera.

Jarraian, gure Elizbarrutiko hainbat lekutan izango den aitortza ordutegia ikus dezakezue:

adOra:

Egunero: 09:00 - 14:00 eta 16:30 - 21:00

Ostiraletan gainera aitortzeko aukera: 15:30 - 16:30

Larunbatetan gainera aitortzeko aukera: 22:00 - 24:00

HARREMANETARAKO: 943 42 81 47

Jesuiten eliza (Donostia):

Goizez, 10:00 - 14:00 eta arratsaldez, 18:00 - 21:00

HARREMANETARAKO: 943 42 97 20

Kaputxinoen eliza (Donostia):

Goizez, 08:00 - 12:00 eta arratsaldez 17:30 - 20:00

HARREMANETARAKO: 943 42 66 66

Artzain Onaren Katedrala:

Astelehenetik larunbatera: 10:00 - 12:00

Astelehenetik ostiralera: 19:00 - 20:00

Igandetan: 17:45 - 18:45

HARREMANETARAKO: 943 46 45 16

Loiola:

Goizez, 08:00 - 14:00 eta arratsaldez 15:30 - 18:30

HARREMANETARAKO: 943 02 50 00

Arantzazu:

Igandetan, goiz eta arratsaldez.

HARREMANETARAKO: 943 78 09 51 / 943 78 07 97



5

ERRUKIAREN ESPERIENTZIAK GURE ELIZBARRUTIAN

ERRUKIAREN ESPERIENTZIAK GURE ELIZBARRUTIAN

5.1. CARITAS “Arrotz bainintzen, eta etxean hartu ninduzuen” (Mt 25, 35)

Oraingoa une aproposa da Elizak munduan duen lekua ikusteko, eta fededun bezala, justizia eta bakearen aldeko aldaketa soziala bultzatzeko.

Caritas, Eliz erakundea, egunero ari da Errukia eta Maitasuna helarazten kristau elkartearen izenean. Jainkoaren Erreinua, munduaren argia eta gatza dena, sua eta bizia bihurtzea lortu behar dugu.

Caritasek sufrimenaren aurpegi orori aurre egiten dio eta sufritzen ari dena itxaropenez betetzen du. Hori da gure helburua, bizitza Ebanjelikoa. Jesusen neurrigabeko Errukia.

Gure lana, katolikoa, unibertsala eta bereizkeriarik gabekoa da, edonori irekia dago eta Errukiaren Urtea dela eta, Caritaseko gune eta proiektu nagusienak zuzen-zuzenean ezagutzeko aukera eman nahi dugu, bi ekimenen bidez:

- **Bisita gidatuak** (2015eko urritik hasi eta 2016ko ekaina bitartean) Caritasen egoitza ezberdinetara:
 - Hotzaldi (hotzaren aterpea).
 - Laguntza Etxea (etorkinen harrera zentroa).
 - Lamorus (trebakuntza eta lana sustatzeko egoitza).
 - Zurekin Bat (aisialdi gunea).
 - Bidezko Merkataritza (Kitzin Denda) eta Nazioarteko Lankidetz
 - Ijitoen departamentua.
 - Trintxer (gizarte-bazterkerian dauden pertsonentzako zentroa).
 - Gizaide (gaixotasun mentala duten pertsonen hezkuntza, berreskuratzea eta gizarteratzea).
 - Hurkoa (adineko pertsonen arreta).
 - Aukera (lanaren eremua lantzen da).

- **Lanaldiak.** 2016ko uztailean egingo dira Caritaseko egoitza ezberdinetan (18 urtetik gorako pertsoneri zuzenduta) eta Martuteneko espetxean (20 urtetik gorakoentzat).

Bizitza erraza ez duten pertsonen bidelagun izan, bazterketa sozialaren arrazoiak aztertu, ulertu, eta gizarte zuzenago baten alde aritzeko aukera eskaintzen zaigu.

HARREMANETARAKO:

e-posta: borondat@caritasgi.org

Telefonoa: 943 44 07 44

5.2. "Gaixo nengoen eta bisitatu ninduzuen" (Mt, 25,36)

5.2.1. Aita Menni ospitalea: buruko gaixotasunak

Arrasateko Aita Menni Erlijiosa Ospitalarien etxea, buruko gaitza duten gaixoeziko Jainkoaren Errukiaren ispilu dugu. Eta Errukiaren urte honetan, Elizbarrutiko gunen nagusietako bat izango da.

Jubileu Urtearen hasiera ofiziala ere izango da Aita Mennin, besteak beste.

EGITARAUA:

- Abenduaren 18an, 11:00etan: Urte Santuaren hasierako Eukaristia eta atearen irekiera.
- Ospitalean bertan irabazi ahal izango da Jubileua (eguneroko Eukaristia).
- Asteburu osoko egonaldiak: Errukizko esperientzia bizi nahi duen orok asteburua zerbitzuan zein otoitzean eman ahal izango du Aita Menni ospitalean Jubileu Urte osoan zehar.
- Udako egonaldia gazteentzat: 18 urtetik gorako gazteentzat egonaldi berezia antolatu da, Uztailaren 10etik 17ra, zerbitzuan eta otoitzean.
- Aste Santua eta Pazkoa gazteentzat: 18 urtetik gorako gazteentzat egonaldi berezia, Martxoaren 24tik 27ra.
- Eguberria: Abenduaren 24an, 11:00etan, Betleemgo bake eta errukizko argiaren harrera ospakizuna.

- Erretiroak:
 - Abendualdian: Abenduaren 19.
 - Garizuman: Otsailaren 21.

HARREMANETARAKO:

Aita Menni Erlijiosa Ospitalariak. Egoitz Zabala

Telefono zenbakia: 943 79 44 11

Posta: ezabala@aita-menni.org

5.2.2 Osasun pastoralta

Gaixoaren Munduko egunean Frantzisko Aita Santuak igorritako mezua, "Fidatu Jesus errukitsuarekin, Maria bezala": "Egin Horrek esango dizuena" (Jn 2,5). "Gaixotasunak, gaitz larriak batez ere, giza izaera kolokan jartzen du beti eta barru-barruko galderak sorrarazten dizkigu" eta batzuetan haserreak eragindakoak izan daitezke: Zergatik niri? Etsipenean eror gaitzke, dena galdua dagoela eta ezerk zentzurik ez duela pentsatu... eta horrelakoetan Jainkoarengana-ko fedea zalantzan jar daitekeela erakusten digu, baina halaber fede horrek duen indar handia azalarazten du. Eta ez fedeak gaitza, mina edota zalantzak ezabatzen dituelako; bizi duguna ulertzeko giltza eskaintzen digulako baizik; hau da, gaixotasuna, Gurutzea hartuta alboan dugun Jesusengana iristeko bide dela erakusten digu.

Frantzisko Aita Santuak, gaixoen eta sufritzen dutenen zerbitzura daudenei, Maria, Errukiaren Amaren espirituari jarraitzeko eskatu die, gure begiak ere errukitsu bihurtu daitezen, atsekabe unetan batez ere.

Gure Elizbarrutiko Osasun Pastoraltzak konpromiso hori bere egin du eta Errukiaren Jubileurako ekintzak eta zerbitzuak indartuko ditu.

Ospitalean: Garizuma eta Gaixoaren Pazkorako ospakizun bereziak izango dira zentro guztietan.

Osasun pastoraltzaren Lantaldeak:

- Tokian tokiko beharrak ikusita, parroki mailan ekintzak eta ospakizunak antolatuko dituzte taldeek, Gaixoaren Pazko inguruan (Pazkoaldiko VI. igandea)
- Zaharren egoitzetan ekimen bereziak antolatuko dira
- Elizbarrutiko batzarrean Errukiaren Jubileua izango dugu mintzagai

- Osasun Pastoraltzako kideentzat topaketa-erretiroa egingo dugu Arantzazun martxoa-apirila inguruan
- Bailara ezberdinetan topaketa-erretiroak antolatuko dira, behar eta eskabideen arabera
- Gaixoaren Pazkoa: Gaixoen Oliadura bultzatuko dugu
- Adiskidetze sakramentuan eta Gaixoen Oliaduran sakonduko dugu
- Osasun Pastoraliza ezagutu eta hartan parte hartzeko deia eta gonbita egin nahi diogu jendeari.

HARREMANETARAKO:

Parrokietan: Osasun Pastoraltzaren Arduradunak

Elizbarrutiko Ordezkaritza: Jose Mari Landa: 943 28 50 00

osasun@elizagipuzkoa.org

5.3. ESPETXE PASTORALTZA

“Kartzelan nengoen eta ikustera etorri zineten”(Mt 25,36)

Aita Santuak beti izan ditu bihotzean presoak. Horregatik, Errukiaren Urtean haiek ere barkamen osoa eskuratu dezaketela azpimarratu du.

Aita Santuaren hitzetan, presoek “Kartzeletako kaperetan iritsi ahal izango dute induljentzia, eta pentsamenduz eta otoitzez Aitarekin bat eginez beren ziegako atea igarotzen duten bakoitzean Ate Santua igarotzearen ezaugarria egingo dute, bihotzak aldatzeko gai den Jainkoaren Errukiak, bihur baititzake burdinazko atea askatasun-esperientzia”.

“Jubileua, dio Aita Santuak, beti izan da amnistia orokor baterako egokiera. Zigorra merezi izan arren, egindako zuzengabekeriaren arduraz jabetu eta era zintzoan beren ekarpena eginez gizarteratu nahi dutenei zuzendua egon ohi da bereziki amnistia hau. Iritsi bedi horien guztien-gana Aitaren errukia, bere barkamenaren beharrik handiena dutenen ondoan egotea baitu Aitak gogokoen”.

Aita Santuaren hitz hauekin bat eginez, gure elizbarrutiko Espetxe Pastoraltzak errukia aldarrikatzen du huts egin dutenak baztertzen dituen gizarte honetan. Jainkoaren samurtasuna askatasunik ez dutenei eramateko nahia dugu, bakarrik eta abandonaturik sentitzen direnei bereziki; Aitaren maitasuna eta barkamena jasotzeko itxaropenik ez dutenei.

Halaber, espetxean errukizko esperientzia izateko aukera zabaldu nahi diogu eremu honetatik kanpo eta urrun den gizarteari. Horretarako prestatu ditugu ondorengo ekimenak:

- Ostiral Santuan, 2016ko Martxoaren 25ean Martuteneko kartzelan ospatuko dugun Gurutze-bidean parte hartzeko aukera. 20 urtetik gorako gazteentzat.
- 2016ko Uztailean Martuteneko kartzelan egingo dugun lanaldian parte hartzeko gonbita. 21 urtetik gorako gazteentzat.

HARREMANETARAKO:

Telefono zenbaki: 943 28 50 00

posta: espexepastoraltza@elizagipuzkoa.org

5.4. FAMILIA PASTORALTZA Familia, errukiaren etxe

- Maitasunezko harremanak, ezkonduak eta familia oro har eta batez ere, zauridun bikote eta familiak, arazoak dituztenak edo eta ohiz kanpoko egoeran daudenak, Jaunaren Errukiaren beharra dute; Elizaren hurbiltasunaren eta laguntzaren premian daude.

Laguntza eta hurbiltasun honen beharrari aurre egiteko, Familia Pastoraltzak, Familien Aholku Etxeak (FAE) eta Eliz Auzitegiak bat egin eta honako zerbitzuak eskaintzen dituzte:

- 1.- **Raquel Proiektua:** abortua egin duen ama, bere ekintzaren biktima ere bada eta abortuak eragindako zauriak sendatu ahal izateko Eliza errukitsuak laguntza pertsonala eta espirituala eskaintzen dio.

Errukiaren Jubileu honetan harrera berezia egin nahi die abortua egin duten emakumeei, adiskidetze eta sendatze prozesuaren bidez Jainkoak eurengan bizi berria sor dezan.

Harremanetarako: 650 307 183 (Teresa Martin)

- 2.- **Familien Aholku Etxea (FAE):** arazoak dituzten ezkonduak eta familiek eta ezohiko egoeran dauden pertsonak, harrera, aholkua eta laguntza behar dute. Elizbarrutiko FAEk haintzat lagungarria izan nahi du.

Harremanetarako: 943 43 11 77 (Mikel Iraundegi)

- 3.- **Eliz Auzitegia:** hautsitako bikoteek euren ezkontza baliogabea den ala ez argitzeko eliz-aziari ekiteko aukera eta eskubidea dute.

Eliz Auzitegiak ezkontza-loturaren gainean justizia egin ahal izateko bidea eskaintzen du: Errukia justiziaren gainetik dago, baina bere baitan ere badu.

Harremanetarako: 943 28 50 00 (Sebastian Uria)

5.5. Gizartean txertatuak, Errukiaren Erreinua eraikiz

Elizaren erakundeetan Errukiaren esperientzia bizi ahal izateko ditugun aukera ezberdinak azaldu ditugu aurreko ataletan. Baina ezin mugatu gaitezke Elizaren baitan sortutako ekimenetara. Fededunok gizartean txertatzera deituak gaude, gizarte mailan bertan ere Jainkoaren Erreinua badela azaldu eta haren hazkundera bultzatzeko.

Evangelii Gaudium idatzian Frantzisko Aita Santuak zera dio: *“Gure maitasunezko erantzunak ez luke izan behar zenbait behartsuri eskainitako laguntzatxoeren batuketa hutsa, “gure neurriaren egindako karitatea” izaten bailiteke hori, gure kontzientzia lasaitzeko joera bakarrik duten ekin-tza multzo bat, alegia. Proposamena Jainkoaren Erreinua da (ik. Lk 4,43); munduan errege den Jainkoa maitatzea da kontua. Haren erregetza gure artean ezartzea lortzen duen heinean, bizitza soziala senitarte-, justizia-, bake- eta duintasun-gune izango da guztiontzat. Era horretan, bai iragarpenak eta baita kristau-esperientziak ere ondorio sozialak sortzen dituzte”* (EG 180 zenbakia)

Aparecidako Idazkia aipatuz, zera gaineratu du Frantziskok Evangelii Gaudium bertan: *“Jesusen karitate-aginduak bizitzaren alderdi guztiak hartzen ditu, pertsona guztiak, elkarbizitza-giro guztiak eta herri guztiak. Ez da ezer gizakiarenik arrotz gerta dakiokenik. Egiatzko kristau-itxaropenak Erreinu eskatologikoa du helburu, eta itxaropen hori historiaren sortzaile da beti”* (181 zenbakia)

Aita Santuaren gogoeta hauetatik ondorio argia atera dezakegu: Errukiaren Jubileua honetan, Elizatik kanpo sortu diren ekimenetan parte hartzera deituta ere bagaude, baldin eta Jainkoaren Erreinua eraikitzeke baliagarriak badira. Gutako bakoitzak bereizmen hau egin beharko luke bere bizitzan eta bere inguruan. Horrek ez du esan nahi noski gure nortasun katolikoa galdu behar dugunik; alderantziz, “argi”, “gatz” eta “legami” izatea eskatzen digun Jesu Kristoren deiari erantzutea da.

Argi eta garbi azaltzen du Aita Santuak Evangelii Gaudium idatzian: *“Fededunok gertuko sentitzen gara, beren burua tradizio erlijioso jakin bateko aitortu ez arren, egia, ongia eta edertasuna zintzotasunez bilatzen dutenekin, guk Jainkoari aitortzen diogularik horien adierazpen gorena eta iturria izatea. Giza duintasunaren defentsan aliatu bikain bezala ikusten ditugu, baita herrien arteko bizikidetzaren eraikitzekean eta kreazioa zaintzekoan ere. Esparru berezia dira Areopago berriak, “Gentilen Ataria” esaterako, bertan “fededunak eta ez fededunak elkarrekin mintza daitezke etikaren, artearen eta zientziaren gai nagusiei buruz eta haraindikotasunaren bilaketari buruz ere”.* (257 zenbakia).



6

GURE ELIZBARRUTITIK KANPOKO ESPERIENTZIAK

GURE ELIZBARRUTITIK KANPOKO ESPERIENTZIAK

“Utzi zure lurra, eta zoaz nik erakutsiko dizudan lurraldera” (Gn 12,1)

6.1 Misioak

Kristauok, ezinbestean izan behar ditugu kontuan behartsuak eta bereziki hirugarren munduan bizi direnak; haiei laguntzeko konpromisoa hartu behar dugu. Frantzisko Aita Santuak errukirako egin digun deiak misio lekuetan fedea bizitzera bultzatzen gaitu eta Hegoaldeko herrialdetan bizi direnekin egotera.

- **Bizipena Hegoaldean.** *Hegoaldeko herrialdeetako elkarteetan (Afrika eta Latinoamerika) pobrezia eta bazterketa pairatzen duten testuinguru batean, fede esperientzia bat izan (udaran). 20 urtetik gorako pertsonen zuzendua.*

HARREMANETARAKO:

Telefonoa: 943 44 07 44

Posta elektronikoa: cooperacion@caritasgi.org

6.2 Gazteak

Errukiaren Jubileu Urtean, Frantzisko Aita Santuak Krakoviara, uztailaren 26tik 31era ospatuko den Gazteen Munduko Jardunaldiari deitu ditu gazteak.

Krakovia, Jubileu Urtearen erdigune izango da gazteentzat. Han, errukia bizitzaren eredu eta fedearen ardatz bihurtzera deituko ditu Aita Santuak: **“Jesusengan azaltzen den Jainkoaren aurpegi errukitsua aurkitu eta bere egiteko aukera izango dute gazteak”**.

Donostiako Elizbarrutiko Gazte Pastoralzak ere gertakizun handi honetan izan nahi du eta Aita Santuak egindako deialdiari erantzunez, Gazteen Munduko Jardunaldiari begira ekimen eta ekintza egitarau zabala prestatu du datozen hilabeteetarako. Halaber, Krakoviara erromesaldi berezia prestatu du eta Elizbarrutiko gazte guztiak parte hartzera animatzen ditu.

Erromesaldiaren nondik norakoak:

Uztailaren 22an irtengo da Donostiatik. Bidaia autobusez egingo da. Bidean, Frantzia, Italia eta Austriako hiri ederrak ikusi ahal izango dira. Uztailaren 27tik 31ra Krakovian GMJn parte hartu eta 31n bertan etxerako bidea hartuko da. Abuztuaren 3an iritsiko da erromesaldia Donostiara.

HARREMANETARAKO:

Posta elektronikoa: info@gazteliza.org

Telefonoa: 697 726 975

6.3 Helduen erromesaldia Krakoviara

Gazteen Munduko Jardunaldia bukatuta ere, Errukiaren Urtean biziki murgiltzeko gune garrantzitsua izango da Krakovia. Horregatik hain zuzen, 2016ko urrirako, helduei zuzendutako erromesaldia antolatu du Elizbarrutiko Erromesaldi Ordezkaritzak. Sei egunetako bidaia izango da, On Jose Ignazio gure gotzainak burututa.

- **Erromesaldiaren nondik norakoak:** Bidaia hegazkinez, Krakoviara. Han ostatua, Jainkozko Errukiaren Santutegian eta handik bitak egingo dira San Joan Paulo II.aren bizitzako gune nagusietara (Krakovia, Czestochowa, Wadowice, Kalwaria...) eta baita beste interes-gunetara ere (Auschwitz eta Gatz- meategiak).

Izena emateko epea: 2016ko Pazkotik aurrera.

HARREMANETARAKO:

Posta elektronikoa: peregrinaciones@elizagipuzkoa.org

Telefonoa: 646 970 983



7

OTOITZA

OTOITZA

“Bihotzera mintzatuko natzaio” (Os 2,16)

7.1. “Hona hemen gizakiak hainbeste maite dituen Bihotza”.

Urgull Mendiko Kapera

Errukiaren urtean zehar Urgulleko Jesusen Bihotzaren Kapera bisitatuz jubileuko barkamen osoa eskura daiteke.

Gainera, ekintza, ospakizun eta otoitzaldi ugari antolatu dira:

- **OSTIRALA: Meza Santua, 08:00etan**
07:20tan, Koruko Amaren basilikatik hasita igoera, Errosario Santua errezatuz.
GARIZUMAN: 07:30ean Gurutze-bidea, Koruko Amaren basilikatik abiatuta.
- **IGANDEA (BESTE JAIEGUNETAN EZ): Meza Santua 09:00etan**
08:20tan, Koruko Amaren basilikatik hasita igoera, Errosario Santua errezatuz.
- **HILEKO LEHENENGO IGANDEA: Meza Santua 09:00etan eta 12:00etan**
Eukaristiaren ondoren, Motako Kristo Santua gurtzea. Biren artean, Gure Jauna agirian jarriko da.
Irailen 12:00etako Eukaristia hirugarren igandean egingo da, estropadak direla eta.
- **EKAINA (JESUSEN BIHOTZAREN HILA): Egunero Eukaristia 08:00etan. Igandean 09:00etan.**
EKAINAK 2, JESUSEN BIHOTZAREN FESTABURU BEZPERA: 22:00etan Gaubeila, Usategitik abiatuta.
EKAINAK 3, JESUSEN BIHOTZAREN FESTABURUA:

GOIZEZ:

Meza Santua: **7, 8, 9, 10, 11 eta 12etan**
12:30etik aurrera, Gure Jauna gurtzea, txandaka.

ARRATSALDEZ:

15:00etan, Jainkozko Errukiaren Koroaren otoitza.
17:00etan, Ordu Santua- Familien sagarapena.
18, 19 eta 20etan Meza Santua

AITORTZAK, Ordu Santuan zehar eta ondoren
Egun osoan zehar autobus zerbitzua egongo da.

- **AZAROA:** Kristo Erregearen ohorezko Hirurrena. Elkartearen web orrian ikusi.
- **GURE JAUNA GURTUZ:** Errukiaren urtearen amaieran egingo da. Elkartearen web orrian ikusi.
- **EGITARUAZ KANPO, TALDEKO BISITAK EGIN DAITEZKE.** Aldez aurretik eskatu behar dira web orriaren, posta elektronikoaren edo telefonoaren bidez:

HARREMANETARAKO:

www.sagradocorazonurgull.com

sagradocorazonurgull@gmail.com

943 42 47 98 / 679 675 232

- **AUTOZ IRISTEKO BAIMENA, Udaletxean eskatu behar da:**
Bide Publikoetarako Zerbitzua
Urdaneta kalea, 13
Tel. 943 48 10 49 – 943 48 10 00
www.donostia.eus
- **AUTOBUSEZ. 39. autobus-linea–** Ekainean eta irailean asteburuz dago zerbitzua eta uztailean eta abuztuan, egunero.
<http://www.dbus.eus/es/39-urgull/>

7.2. “Izan guretzat erruki!” JAINKOZKO ERRUKIAREN KOROA

Jainkozko Errukiarenganako deboziaren jatorria, Jainkoak Santa Faustina Kowlaska, 1905 eta 1938 artean bizi izan zen erlijiosoari egindako agerpenetan dago. Agerpen horiek, “**Jainkozko errukia nire ariman**” egunerokoan bildu zituen santuak.

Jaiera honek, Jainkoaren Errukian uste osoa izatera eta lagun hurkoarekin errukitsu izatera garamatza. Santuaren egunerokoan Jaunak behin eta berriz azpimarratzen du errukia dela bere ezaugarririk nagusia eta damututako bekataria barkatzea duela pozik handiena. Baina horretarako ezinbestekoa du Bereganako konfiantza. “*Arimarik zoriontsuena nire Errukian uste osoa duena da, Nik Neuk zaintzen bait dut*” (egunerokoan). “*Bekatariak damu direnean nire Errukia mugagabea da. Zenbat eta handiagoa izan bekatua, orduan eta handiagoa da Erruki eskubidea*” (egunerokoan).

Debozioaren ezaugarriak, hauek ditugu:

- 1.- Jesus Errukitsuaren irudiaren gurtza.
- 2.- Jainkozko Errukiaren Errosarioaren otoitza.
- 3.- Jainkozko Errukiaren bederatzaurrena.
- 4.- Jainkozko Errukiaren Festaburuaren ospakizuna.
- 5.- Errukiaren ordua (arratsaldeko 15:00etan).

Errukiaren Jubileu honetan, Jainkozko Errukiaren bederatzaurrena eta Jainkozko Errukiaren Festaburua, Artzain Onaren katedralean ospatuko ditugu. Bederatzaurrenaren ordutegia bere garaian jakinaraziko dugu baina Jainkozko Errukiaren festaburua apirilaren 3an ospatuko dugu, 18:00etan, On Jose Ignazio gure gotzaina buru dela.

Jarraian, Jainkozko Errukiaren Koroa gure elizbarrutian zein lekutan eta egunetan errezatzen den ikus dezakezue:

Astlehena 11,00: Lasarteko Brijidak. - Lasarte
18,30: Legazpiko Parrokia

Asteartea: 17,30: Artzain Onaren Parrokia (Katedrala) Donostia
19,00: Jesus eta Mariaren erakunde Misiolaria - Trintxerpe

Asteazkena: 12,30: Lourdesko Amaren Eliza (Kaputxinoak) -Donostia
17,00: Santa Klara Monastegia - Zarautz
18,00: Jasokundearen Parrokia (Deba)
18,15: Zorroagako Egoitza – Donostia
18,30: San Pedro Parrokia - Lasarte
18,30: Domingotarren Monastegia – Donostia

Osteguna: 10,30: Errosarioko Parrokia- Donostia
12,30: Frantziskotarren Parrokia (Atotxa) Donostia
16,45: Lamorus Egoitza – Donostia
17,30: San Jose Langilea Parrokia - Altza
18,30: Santa Maria Erregina Parrokia - Donostia

ERRUKIAREN JUBILEUA

Ostirala: 17,45: Benediktarrak - Lazkao
Hileko azken ostirala: 18,00: San Bizente Parrokia- Donostia
18,00: Jasokundearen Parrokia - Beasain
17,45: Soreasuko San Sebastianen Parrokia - Azpeitia

Larunbata: 17,00: Santa Klara Monastegia - Tolosa
18,30: Espiritu Santua Parrokia - Ibaeta – Donostia

Igandea: 18,00: Koruko Amaren Basilika – Donostia

HARREMANETARAKO:

posta: divinamisericordiagip@gmail.com

Telefonoa: 676 654 549



8

ADISKIDETZE ESPERIENTZIA: OSTIRAL SANTUKO
GURUTZ-BIDEA URGULLERA

OSTIRAL SANTUKO GURUTZE-BIDEA URGULLERA

“Jaunak barkatu zizuen bezala, barkatu zuek ere, elkarri” (Kol 3,13)

Pazko Hirurrenean ospatuz urtero hainbat gizon-emakume biltzen da gure herrietan Gurutze-Bidea ospatuz. Ospatu hitza aldrebesa litzateke nondik abiatzen garen eta nora goazen ez badakigu. Abiapuntua Jesusen eskaintza gurutzean eta norabidea Jainko Aita Onak bere Semeari emango dion Bizitza Berria. Hala, gurutzea, heriotzaren eta torturaren tresna madarikatua, be-deinkatua eta gurutze santu maitea gertatzen zaigu.

Gure herriak urte luzeetan pairatu duen indarkeria gogoan izanik egin nahi dugu aurtengo Gurutze-Bidea. Guztiak dira Gurutziltzatuaren oroimen askatzailea. Guztiak, oraindik gurutzearen zama daramaten sufrimenaren testigu.

Baina, aurtengo Errukiaren Jubileuaren ospakizun handi honetan denborak bereizi nahi ditugu eta barkamenerako tokia egin nahi genuke Ostiral Santuko goizeko Gurutze-Bidean. Herrietan, eliza, nahiz gure mendi muinoen gurutzeko bideetan zehar justizia, barkamena eta bizitza aldarrikatu nahi dugu urratsez-urrats.

Aurtengoa, hain ezaguna zaigun Donostiako Parte Zaharretik ateratzen den Urgulleko mendi tontorreko bideko Gurutze-Bidea egin nahi dugu orain 3 urte Bilbo, Gasteiz eta Donostiako Elizbarrutiek bateratu genuen Bakearen Aldeko Otoitzaldiaren asmoa berrituz eta berrindartuz. Mendi tontorrean gurutzea aurkitzen da. Hau bizitzan zehar jasandako hainbat sufrimenduren testigu, hau Jainkoak eskaintzen digun askapenaren lekuko. Jesu Kristok ondo asko daki bide malkartsu eta odoltsuaren berri eta sufritzen ari direnekin, indarkeria pairatu dutenekin bat egiten du. Bat egiten dugu, batu egin nahi dugu Jesusen Piztueraren atarian.

Onartu beharrean gaude bakearen esperantza berpiztu dela gure herrian. Otoitz eginez honi hauspoa eman nahi diogu elkarren arteko konpromisoa berrituz eta senide-elkartasunaren indarrak bateratuz. Bakea guztiontzat oparia izan dadin, bakea lortu nahi dugun ahalegina dela, bakea dohaina dela, errukiaren eta maitasunaren eraikin fina.

Bizikidetza baketsu eta lasaia nahi dugu guztiontzat, inori kalterik egin gabe, bizia Jainkoaren dohain sakratu eta gizakion eskubide bezala onartuz. Bakea lortzeko bidean egin nahi dugu Gurutze-Bidea, gezurrak alboratuz eta egia nork bere interesen zerbitzuan erabili gabe.

Barkamena eskatzeko une aproposa da aurtengoa. Onartu eta ematen ikasi nahi dugu, begiak eta bihotzak topo egin dezaten. Indarkeria sufritu dutenen ondoan egon nahi dugu gurea ez den eta Jainkoak eman digun itzaropena berpiztuz.

Urteroko gure herrietako Gurutze-Bideetan bakoitzak darama bere aldarria, bere otoitza, guztiona den bakean eta justizian bizi nahi izateko bistako gogo ezkutua.

Aurten, martxoak 25ean, Urgulleko bidean egingo dugun ibilbidea Jesusen Gurutzearen bidea izango da eta gure herrietan, gure etxeetan adiskidetze eta bakearen aldeko biderearen ezaugarria izan nahi du, Jainkoak bakarrik eman diezagukeen bakea barrenetik eginez, ospatuz eta biziz.

HARREMANETARAKO:

San Bizente Parrokia. San bizente, z/g. 20003 Donostia (Parte Zaharra)

Telefonoa: 943 42 21 99